

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Osoko bilkuretara eta informazio batzordeen bilkuretara joateagatik ordainduko diren ordainsariak

Aguraingo Udalak, 2019ko uztailearen 3ko osoko bilkura berezian, udalbatzako legezko kideen gehiengo osoz, hau erabaki zuen osoko bilkuretara eta informazio batzordeen bilkuretara joateagatik ordainduko diren ordainsariei buruz:

Lehenengoa:

1. Alkate-lehendakariak 0,00 euro jasoko ditu urtero alkate lanak eta udaleko gobernua eragindako lanak egiteagatik.

2. Korporazioko gainerako kideen kasuan, kide anitzeko organoen bilkuretara joateagatik 140,00 euroko kopuru finkoa jasoko du bakoitzak, eta informazio batzordeen bileretara joateagatik 80,00 euro; gehienezko dotazioa 36.000 eurokoa izango da. Osoko bilkura eta informazio batzordea egun berean badira, osoko bilkurara joateagatik bakarrik ordainduko da. Eta informazio batzordeen bilkurak egun berean badira, batzorde batera joateagatik bakarrik ordainduko da.

3. Korporazioko kide guztiek jasoko dute euren egitekoak betez sortzen zaizkien gastuen ordaina, hauei badagozkie: bidaia gastuak, joan-etorriak eta otordu sariak, betiere behar bezala justifikatu ondoren.

4. Kide anitzeko organoen bilkuretara benetan joateagatik kideei esleitutako kopuruak apirilean, uztailean, urrian eta urtarrilean ordainduko dira.

Bigarrena:

Erabaki hau ALHAOn eta iragarki taulan argitaratzea.

Eta argitaratu egiten da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75. artikuluan xedatutakoa betez.

Agurain, 2019ko uztailearen 4a

Alkatea

ERNESTO SAINZ LANCHARES